

# **DANTZA GARAIKIDEAREN JAIALDIAREN ZUZENDARI ARTISTIKOA HAUTATZEKO DEIALDIA**

## **1. NAFARROAKO DANTZA GARAIKIDEAREN JAIALDIA (DNA)**

Nafarroako Dantza Garaikidearen Jaialdiak (hemendik aitzina, DNA) 2016an ikusi zuen argia, Nafarroan dantzarako gunea berreskuratzeko bokazioarekin eta gure Komunitatean erreferentziazko programa artistikoetako bat bilakatzeko xedearekin.

Programazioan bereziki kontuan hartuko dira dantza garaikidea, sormenik berriena eta azkeneko joerak. Era berean, jaialdiak tokiko sortzaileak ez ditu alde batean utziko; izan ere, hausnarketarako, prestakuntzarako eta trukerako guneak eskainiko ditu.

DNA JAIALDIAREN zutabeetako beste bat aniztasunari erantzutea eta jendarte berriak sortzea da. Horretarako prestatu dira familiendako eta gazteendako zenbait ikuskizun.

Azkenik, DNA JAIALDIAK dantzaren berrikuntzarako erreferentziagune izan nahi du. Apustu bat, sormen prozesuei eta bestelako hizkuntzei atea irekitzeko.

DNA JAIALDIA urtero egingen da, udaberrian, apirilaren 29an egiten den Dantzaren Nazioarteko Egunaren hurbileko egunetan. Kultura Zuzendaritza Nagusiak antolatzen du, Baluarte Fundazioarekin elkarlanean.

Kultura Zuzendaritza Nagusiak Baluarte Fundazioari agindu dio Dantza Garaikidearen DNA JAIALDIA zuzendaritza artistikoa hornitzeko deialdia abiatzea.

## **2. DEIALDIA**

DNA JAIALDIAREN zuzendari artistikoa izateko proiektuak aurkezteko deialdi irekia abiatu da 2017ko ediziorako. Hasiara batean, zuzendari postu hori bi ediziotarako izanen da eta urtero luzatzen ahalko da, proiektuaren emaitza ebaluatu eta Jarraipen Batzordeak alde zuzenetik ontzat eman ondoren.

### **2.1. HELBURUAK**

Programaren helburua da Nafarroan, estatuan eta nazioartean sortutako dantza garaikidearen erakusleirioa izatea.

Jaialdiaren helburu ere badira bertan nafar artistak egotea eta hedapen kulturala egitea.

### **2.2. KOORDINAZIOA, EKOIZPENA ETA KUDEAKETA**

Kultura Zuzendaritza Nagusiak (KZN) eta Baluarte Fundazioak (BF) jaialdia koordinatu, ekoitzi eta kudeatuko dute eta jaialdiaren zuzendaritza orokorraz arduratuko dira. Entitate horien eginkizunen artean dago jaialdiaren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak zuzentzea. Bi entitate horiek izendatutako koordinatzaileak zuzendari artistiko izateko hautatuko den pertsonaren solaskideak izanen dira eta horretan Jarraipen Batzordearen laguntza izanen dute (Jarraipen Batzorde hori arte eszenikoetako sektoreko, KZNko eta BFko kideek osatuko dute eta haren eginkizunak 2.4 puntuan zehaztuko dira).

### **2.3. ZUZENDARI ARTISTIKOAREN EGINKIZUNAK**

Jaialdiaren zuzendaritza artistikoaz arduratuko denak elkarlanean aritu beharko du Nafarroako programatzaile, erakunde eta artistekin eta jaialdiko programa sortu, planifikatu eta gauzatu beharko du.

Dantza garaikidearen jaialdiaren zuzendari artistikoak honakoez arduratu beharko du:

- Jaialdiaren programazioa, Nafarroako, estatuko eta nazioarteko artistak bertan sartuz.
- Entzule berriak sar daitezen sustatzea, inklusio, parte-hartze eta kogestioko politiken bidez.
- Jaialdiaren programazioa, ezarritako egutegi-ordutegiaren barnean eta jasangarritasun irizpideekin ezarritako aurrekontuarekin. Proiektuak, artistak eta konpainiak proposatzea. Haiekin harremanetan jartzea. Konpainia, artista eta gonbidatutako beste profesional batzuen lana koordinatzea.
- Harremanak izan eta mantentzea Nafarroako, estatuko eta nazioarteko beste jaialdi, sustatzaile eta erakunde batzuekin.
- Komunikazio plana diseinatzen laguntzea, Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin eta Baluarte Fundazioarekin elkarlanean.
- Ekoizpena, bere osotasunean eta jaialdiak iraun bitartean, koordinatzen laguntzea, Kultura Zuzendaritza Nagusiak eta Baluarte Fundazioak jarritako langileekin eta baliabide tekniko eta ekonomikoetara doitzuz.
- Komunikazioan eta prentsan ezartzeko berariazko testuak sortzea. Komunikaziorako testuei jarraipena egitea.
- Programatutako artista eta taldeekin harremana ezartzea eta beharrezkoa den materiala eskatzea, gunearen publizitatea egiteko, eta webgunea egiteko beharrezkoa den materiala eskatzea, bai eta kontratuak egiteko datuak ere.
- Alderdi teknikoak (soinua, argiteria eta ikus-entzunezkoak) konpondu behar direnean elkarlanean aritzea jaialdia, taldeak eta artistak.
- Jaialdia ongi egiteko egin beharreko lan guztiak, ezarritako helburu eta jarduketa-ildoei jarraikiz.
- Jarduera ebaluatu eta, jarraian, haren gainera txostena egin eta ematea.

#### **2.4. JARRAIPEN BATZORDEA**

Batzordea eratu da kide hauekin: Nafarroako Gobernuako Kulturako zuzendari nagusia, Baluarte Fundazioko zuzendari kudeatzailea, Kultura Ekintzako

Zerbitzuko zuzendaria, Nafarroako Kulturaren Kontseiluko bi kide, eta dantza sektoreko entzute handiko bi pertsona.

Batzordearen eginkizunak honako hauek izanen dira:

- Zuzendari artistikoa aukeratzea
- Programazioa behin betikoz onestea
- Zuzendaritza artistikoak berarekin dakartzan lanetan laguntzea eta haien jarraipena egitea
- Memoriaren urteko ebaluazioa egitea

## **2.5. HAUTAGAIK**

Pertsona fisikoak izan daitezke hautagai.

Hautagaiek beharkizun hauek bete beharko dituzte:

- Unibertsitateko goi mailako titulazioa izatea eta dantza garaikidearen jaialdiaren helburuak beteko direla bermatuko duten ibilbidea eta esperientzia egiaztatzea.
- Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko beste estaturen batekoa.
- Hautatutako pertsona autonomoen erregistroan alta emanda egonen da jarduera hasten den egunean eta, gainera, beharrezko dokumentazioa ekarri beharko du.
- Hautagaiak balizko interes-gatazkaren gaineko aitorpena aurkeztu beharko du eta esparru berean beste jarduera batzuk egiteko baimena eskatu duela adierazi beharko dio batzordeari.
- Hiru urteko gutxieneko esperientzia antolakunde kultural publiko edo pribatuetan, bereziki dantzaren esparrukoetan.

Proiektuak gaztelaniaz zein euskaraz idatzita aurkez daitezke.

Ingelesa, euskara eta Europar Batasuneko beste hizkuntza batzuk ezagutzea baloratuko da.

## **2.6. HAUTAKETA**

Proiektuak Jarraipen batzordeak baloratuko ditu.

Proiektuak ebaluatzeko kontuan izanen dira: programazio artistikoaren planteamendua, bitartekaritza programak, entzuleak sortzeari arreta egitea, jardunbide egokiekin eta kudeaketako gardentasunarekin bat datozen kudeaketa proposamenak, eta aurrekontu aldetiko bideragarritasuna.

## **2.7. ESKABIDEAK**

Eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izanen da, oinarri hauek Baluarte Fundazioaren eta Kultura Zuzendaritza Nagusiaren webguneetan jendaurrean jartzen direnetik hasita.

Interesdunek dokumentazioa Baluarte Fundaziora igorri beharko dute (Baluarte plaza, z.g. - 31002 Iruña). Dokumentazioa gutun-azal baten barnean sartuko da eta haren gainean "DNA JAIALDIA - Dantza Garaikidearen Jaialdiko zuzendari artistiko izateko deialdia" idatziko da. Dokumentazioa bi gutun-azaletan banatuko da. 1 zenbakidun gutun-azalean parte-hartzailearen datu hauek bilduko dituen dossier bat sartuko da:

1. Motibazio gutuna
2. Izen-deiturak
3. NANA
4. Jaioteguna
5. Helbidea
6. Telefonoa
7. Helbide elektronikoa
8. Curriculum laburra, iruzkindua
9. Unibertsitateko titulua

### 2. gutun-azalean:

1. Proposamenaren marko kontzeptualaren azalpen trinkoa.
2. Proiektuaren aurkezpena. Programazio ildoen proposamena.

3. Egokitzen jotzen den gainerako dokumentazioa.

Batzordeak hautagaiei dei egin diezaieke haien proiektuak aurkez ditzaten. Hautapen prozesuari buruzko kontsultak posta elektronikoz igor daitezke helbide honetara:

[dna-selec@baluarte.com](mailto:dna-selec@baluarte.com)

## **2.8. LAGUNTZA KONTRATUA.**

Baluarte Fundazioak hautatutako pertsonarekin 11.000 euroko laguntza kontratua izenpetuko du. Kontzeptua, hauex: jaialdiaren 2017ko edizioko zuzendaritza artistikorako ordainsaria.

Baluarte Fundazioak gehienez ere 2.000 euroko berariazko diru-kopuru bat gaituko du, lana egiteko soilik beharrezkoak diren bidaia-gastuetarako.

Kontratua betetzeko epea sinatzen den egunean hasiko da eta 2017ko ekainaren 30ean amaituko.

Kontratuaren ordainketa honela egingen da: zenbateko bereko hiru ordainketa: lehena, kontratua sinatzen denean; bigarrena, jaialdia hasten denean, eta, hirugarrenean, urteko memoria aurkeztu eta aldeztu aurretik behar den faktura aurkezten denean.

## **2.9. JARDUNBIDE EGOKIAK ETA KODE ETIKOA**

Erakunde kultural publikoen demokratizazioan eta kudeaketako konpromiso etikoan sakontzeko helburua du jaialdiak. Hartara, jaialdiaren zuzendari artistikoa arduratuko da dokumentu honen eranskinean berariaz adierazten diren gomendioak eta konpromisoak benetan betetzeaz.

Halaber, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legearen arabera, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko; horretarako, idazki bat bidali beharko dute Baluarte Fundaziora.

## ERANSKINA

Konpromisoak jardunbide egokiei dagokienez:

1. Jaialdia nafar gizartean garatu eta ezartzen dela bultzatzea.
2. Jaialdiaren jardueraren balio publikoa edo itzulera soziala erraztea eta lurraldean ongi egituraturiko kultura ekintza erraztea.
3. Zuzendaritzaren autonomia defendatzea injerentzia extraartistikoen aurrean.
4. Esparru guztietan parekotasuna ezartzeko konpromisoa hartzea.
5. Laneko oinarritzko eskubide eta betebeharrak aplikatzea, kontratazio iraunkorreko eredu baten arabera.

Jaialdiaren zuzendari artistikoak proiektua garatuko du honako gomendio eta printzipio hauen arabera:

1. Jaialdiko zuzendaritzaren lerro estrategikoak jendaurrean jartzea.
2. Kudeaketa administratibo koherentea egitea.
3. Funts publikoetan beharrezkoak ez diren gastuak ez egiteko konpromisoa aplikatzea.
4. Tartekatutako eragileekin eta lanbide sektorekoekin elkarlanean aritzea.

Jaialdiaren aurrekontua: 110.000 euro

## II. ERANSKINA

### 2016KO AURREKONTUA

Kultura Zuzendaritza Nagusiaren ekarpenaren aurrekontua: 104.000 euro

Kultura Zuzendaritza Nagusiaren ekarpenaren aurrekontu xehakatur:

- Konpainien kontratazioa: 75.000 €
  - \* Konpainien kaxeta: 47.000 €
  - \* Dantza eta bertzelako proposamen artistiko hedatuak: 20.950 €
  - \* Soloen programa: 7.050 €
  
- Egoitza artistikoak: 4.000 €
- Dantza inklusiboaren jardunaldia: 6.500 €
- Produksioa: 6.000 €
- Komunikazioa (material inprimatuak, web orria, diseinua, pantailak eta abar): 12.500 €

Aurrekontu honi gehitu zaizkio agertokietatik (udal antzerkiak) heldu diren ekarpen eta laguntzak eta bertze azpiegitura batzuk; guztiarekin, festibalari 83.000 euroko osagarria eman dioten kanpo baliabideak lortu dira.